

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultura

2022ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiaren berriazko oinarriak

2021eko urriaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiaren berriazko oinarriak.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 29an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi-ordezkaria
ESTIBALIZ CANTO LLORENTE

2022ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak

1 Deialdiaren Xedea

2022ko inauterietan konpartsen parte hartzea bultzatzeko asmoz Gasteizko Udalak bere aurrekontuko kredituen kontura emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak jasotzen dira araudi honetan.

Ezinbestekoa izango da ekitaldi hauetan parte hartzea:

1. Desfileen aurkezpena: 2022ko otsailaren 22an (asteartea), arratsaldez.
2. Desfileak: 2022ko otsailaren 26an, larunbata, arratsaldez, eta 2022ko otsailaren 27an, igandea, goizez. Konpartsek 50 kide izan beharko dituzte gutxienez, eta desfile bakoitzean 300 kide izango dira, gehienez.

Desfileetan parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa izango da soinua duen karroza eramatea.

3. Sardinaren erreketeta: 2022ko martxoaren 1ean (asteartea), arratsaldez.

Edonola ere, COVID-19aren ondorioz dauden mugak direla eta (edukiak, eta abar), eta alde zuzeneko prestakuntzak egiterik izan ez dela aurreikusita, konpartsek desfileez –2022ko otsailaren 26ko arratsaldekoa eta 2022ko otsailaren 27ko goizekoa– bestelako ekintzak proposatu ahalko dituzte 2022ko edizioan.

Gainerako ekitaldietan parte hartzea nahitaezkoa da (konpartsen aurkezpenean eta sardinaren erreketan).

2 Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Kontzeptu hauetarako emango da dirulaguntza:

- Karrozak eratzea: karroza egiten erabilitako material, alokairu, esku-lan eta abarrak.
- Soinu-aparatuak: girotzeko musikaren kontratazioa edo alokairua, halakorik bada.
- Mozorroak: mozorroak alokatu, erosi edo egiteari loturiko gastuak.

Ez da dirulaguntzarik emango gastu hauetarako:

- Janari-edariak.
- Inauteriengatik bileretara joan beharri loturikoak.
- Erregaien gastuen kasuan, desfileetan parte hartzeak sortutako erregaiaren gastuak bakarrik onartuko dira.

3 Eskatzaileak

Nahi duten entitate eta elkarte oro izan ahalko dira deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun, aurrez hala eskatzen badute, eta baldin eta elkarte gisa legez eratuta badaude, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian erregistratuta eta datuak egunean badituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarrekin, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarrekin izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berriazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, entitate eskatzaileek betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki beharko dituzte. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

4 Aurrekontuko kreditua eta gehienezko kopurua

Deialdi honen ildotik ematen diren dirulaguntzak 2022ko aurrekontuaren 2312.03.3381.489.22 partidari egotziko zaizkio. Partida horrek 85.000,00 euroko kreditua izango duela jotzen da, beraz, dirulaguntzak emango dira baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago dirulaguntza ebazteko orduan.

Behin betiko onespina jasotzen duen aurrekontu-kreditua aurreikusitako kopurua baino handiagoa edo txikiagoa bada, onesten den behin betiko kopuru horixe baliatuko da deialdirako.

5 Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

5.1 Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliaduneko izango da, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

5.2 Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan, eta telefonoz, bi zenbaki hauetan: 010 (deiares prezioa operadorearen tarifaren arabera) eta 945161100.

5.3 Izapideak.

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Oinarri hauetan ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egiteko (www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

Eskabide bakoitzarekin batera aurkeztu beharko dira oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

5.4 Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, hamar eguneko epea emango zaio entitate eskatzaileari akatsa konpontzeko, eta orobat ohartaraziko hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

5.5 Gasteizko Udalak egoki irizten zaizkion argibide eta agiriak eskatu ahalko dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako dirulaguntza eskabideak balioesteko.

5.6 Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

1. Dirulaguntza-eskabidea, udalaren webguneko inprimakia erabilita (www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

2. Kultura Zerbitzuari dirulaguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, elkartearen estatutuen fotokopia eta eoregistro Ofizialean izena emanda duela eta legez erata dagoela egiaztatzen duten agiriak.

3. Kultura Zerbitzuari dirulaguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularraren izena zehazten dituen –elkarteak berak izan beharko du titular, eta ez inongo beste pertsona fisikorik.

4. Oinarrien I. eranskina, inauterietako konpartsan parte hartuko duten kideen zerrenda, izen-abizenak eta nortasun-agiria adierazten direlarik, aseguruari dagozkienetarako. Nortasun-agiririk ez duten adingabeen kasuan aski izango da adina adieraztea.

5. II. eranskina, sinatuta, non Udalak karrozak egiteko asmoz alokatutako pabilioaren erabilerara-araudia ezagutzen duela eta beteko duela adierazten den. Kultura Zerbitzuak gehienez hiru hilabeterako alokatuko du pabilio hori; alokairu aldia luzeagoa edo laburragoa izan ahalko da, gastuari aurre egiteko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa dagoen neurrian Edonola ere, Inauterien osteko hurrengo astea barne izango da beti, eta desmuntatze lanetarako erabiliko da. konpartsak pabilioa erabili behar ez badu, ez da eranskin hau bete beharrik.

6. III. eranskina, sinatuta, 2022ko inauterietan konpartsak zein formatutan parte hartuko duen deklaraturuz. Ezinbestekoa da aurkeztea.

I., II. eta III. eranskinetarako udalaren web-orrian dagoen eredia baliatu beharko da (www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

Pabilioa erabili nahi duten konpartsek karroza egingo duten konpartsa-kideen zerrenda aurkeztu beharko dute – gehienez 10 pertsona–, izen-deiturak, nortasun agiria eta adina adierazten delarik. Udalak kontratatutako istripu-aseguruak estaliko ditu. 18 urtetik gorakoak eta 70etik beherakoak izan behar dute. Azaroaren 18a baino lehen aurkeztu beharko da zerrenda, ahal bada. Konpartsaren batek epe horretarako aurkezterik ez badu, ezingo da pabilioan sartu beharrezko izapideak amaitu arte. Konpartsak pabilioa erabili behar ez badu, ez da eranskin hau bete beharrik.

6 Agiriak Aurkezteko badeak:

6.1 Aurrez aurreko arreta Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.

- Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea.

Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak.

Euskarri horrek lehen mailan (euskarriaren erroa) izan beharko ditu erabat beharrezko artxiboak, PDF formatuan (bereziki hauek: eskabide sinatua, memoria tekniko eta justifikazio-egiaztagiriak); eskatutako gainerako agiriak (esaterako, memoria testu-prozesatzailean, justifikazioaren kalkulu-orriak, eranskinak) dagozkien formatuetan txertatuko dira, eta karpeta esanguratsuetan antolatuko.

Lan edo agiri topografikoen helburua oinarri kartografikoa izatea bada, DWG eta PDF formatuetan aurkeztu behar dira.

Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio —Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz—. Eskabi-deak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du.

Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

- Dokumentazioa paperean aurkeztea:

Agiriak paperean aurkeztuz gero, DINA 4 edo DINA 3 tamainakoa izan behar du, eta herritarrei laguntzeko bulegoan digitalizazioa errazteko, nahitaezkoa izango da orri solteak aurkeztea, grapa, klip edo multzokatzeko inolako sistemarik erabili gabe.

Eskabideari paperezkoa ez den euskarri batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta beraz, hori digitalizatzerik ez badago, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, deialdian adierazitako dirulaguntzen ildoan zein udal zerbitzuri dagokion zehaztuz.

6.2 Egoitza elektronikoaren bidez.

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

7 Dirulaguntza emateko baldintza eta irizpideak

7.1 Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Eskabidea eta oinarri hauetan eskatzen diren gainerako agiriak epe barruan aurkeztea. Azaroaren 18an amaituko da pabilioian karrozak egiteko sartuko direnen zerrenda aurkezteko epea.
- 2020. urtean dirulaguntza jaso zuten konpartsentzat, urte horretako gastuen justifikazioa aurkeztua izatea.
- Mozorroak gaika aurkeztea.

Deialdian parte hartu nahi duten konpartsek dirulaguntza-eskabidea aurkezteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dituzte hautatu duten gaia eta mozorroak (zirriborroa eta/edo argazkiak).

Talde batek baino gehiagok gai berbera aurkeztuz gero, Kultura Zerbitzuko teknikariek horren berri emango diete eragindako konpartsen ordezkariari irtenbide adostua bilatzearen. Ados jartzen ez badira, aurtengo edizioan baimendu egingo zaie proposatutako mozorroak erabiltzea, horiek erosi, alokatu edo josteko epe mugatua kontuan hartuta.

7.2 Eskabideak balioesteko batzordeak egingo du eskabidea egiten duten elkarteei dirulaguntza esleitzeko proposamena, irizpide hauek baliaturik:

Konpartsa bakoitzari 1.500 euroko zenbateko finkoa emango zaio, eta konpartsakide bakoitzeko (gehienez 300 pertsona) zenbateko aldakor bat (gehienez 6,50 euro). Konpartsakide bakoitzeko ordainduko den kopurua aurrekontu-partidaren guztizko zuzkiduraren eta jasotako eskabide kopuruaren arabera izango da.

COVID-19aren ondoriozko arrazoiengatik desfileetan parte ez hartzea erabakitzen duten konpartsek, III. eranskinean hala deklaritzen badute, eskatu egin ahalko dute desfileetako beharrezkoak diren elementuak mantentzeak eragindako gastuak ordaintzea, beti ere azken bi edizioetako desfileetan parte hartu duten konpartsak badira.

8 Laguntza epateko Prozedura

Oinarri hauek azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Araudiaren 56 artikulua xedatutakoaren ildotik bideratu dira, eta horiek alde aurretik izapidetu beharrezkoak izan dira; beraz, dirulaguntzak ematekotan, nahiko kreditu izan beharko du deialdia ebazteko orduan. Kontuan izanik dirulaguntza honen xedea eta helburua, oinarri hauek ezarritako baldintza eta betebeharrak bakoitza eta guztiak betetzen dituzten eskaerak jasoko dituzte dirulaguntzak, harik eta aurrekontu osoa gastatu arte, beharrezkoa bada. Hainbanaketa baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa.

9 Instrukzioa eta ebazpena

9.1 Behin eskabideak jaso eta tramiterako onartu, eta kasu bakoitzean eskatutako betebeharrak bete direla egiaztatu ondoren, balioesteko txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena idatziko dira, eremu bakoitzari dagokionez eta ezarritako irizpideen arabera.

9.2 Udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta horrek ofizioz egingo ditu eskatutako dirulaguntzen ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduera oro.

9.3 Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ildotik, batzorde teknikoa eratuko da, Kultura Zerbitzuko buruak eta zerbitzu horretako bi teknikari osatuta. Batzorde horrek Tokiko Gobernu Batzarrari bidaliko dio ebazpen-proposamena, hark ebazte dezan.

10 Ebatzi eta Jjkinarazteko epea

10.1 Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta. Epe hori ebazpen espresurik eman gabe igaroz gero, ezetsizat joko da dirulaguntza-eskabidea.

10.2 ALHAOren eta Gasteizko Udalaren iragarki-taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

10.3 Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko erabakiak agortu egiten du administrazio-bidea, eta horren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren siltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, nahi badute, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikulua aurreikusitakoaren ildotik.

11 Erakunde onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte, nolatan ere:

- Dirulaguntza zertarako eman zaien, hartarako baliatzea.
- Laguntzak berekin dakartzen betebeharrak eta baldintzak bete direla egiaztatzea Kultura Zerbitzuaren aurrean.
- Diruz lagundutako jardueraren segimendua egite aldera, eskatutako agiri guztiak ematea Udalari.
- Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuak nahiz Kontu-hartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duen beste edozein organok eskatutako informazio oro ematea.
- Diruz lagundutako jardueraren barruan egin nahi den edozein aldakuntza Udalari idatziz jakinaraztea.
- Karrozak egiteko Udalak alokatutako pabilioia erabiliz gero, pabiloiaren erabilera-araudia betetzea (oinarri hauetako III. eranskinean jasota dago).
- Desfileetan parte hartuz gero, karroza eta desfileetarako eskatzen diren baldintza hauek betetzea (jarraian adierazten dira).

Oinarri hauetako eta bere eranskinetako baldintzetakoren bat ez betetzea arau-haustetzat jotzen da dirulaguntzei buruzko udal ordenantzan, eta bertan aurreikusitako zigorrak ezartzea ekar dezake.

1. Karrozak.

Parte hartzen duten konpartsa orok soinua duen karroza eraman beharko dute (bakarra). Karroza gutxienez 12 metro koadro eta gehienez 6 x 4 x 4 metro duen (luzera, zabalera eta altuera, apaingarriak barne) plataforma gogor eta egonkor baten gainean jarri beharko da .

Plataformen gurpilek pneumatikoak edo malgutasun-maila bereko elementuak eraman beharko dituzte, zeinek biratze-bandaren zirrikitu nagusietan marrazkidunak izan beharko baitute, eta erabiltzeko gutxienerako egoera onean egon.

Karrozek suteetatik babesteko hegala bat eraman behar dute perimetro osoan, eta udalak utzitako su-itxalgailu bat izan beharko dute. Ahal den neurrian, karroza egiteko materialak suaren aurkakoak izan beharko dira.

Argindar instalazioak eta karroza bakoitzeko argi eta soinu ekipoen tentsio baxuko agiria eduki beharko dute, argindar-instalazailerak baimendu batek emana.

2022ko otsailaren 22an karrozek prest egon behar dute dagokien ikuskapena gainditzeko, Kultura Zerbitzuak horretarako kontratatutako enpresa baten laguntzarekin elektrizitate instalazioen ziurtagiria (EIZ) izan dezaten.

Ekipo elektrogenoak babestuko egon beharko dute, eta kanpoan egon behar badute, eguraldi txarrerako beharrezko babesa eduki.

Argiztapen sistema ekipoen osagarriaren batek sortua bada (multzo elektrogenoa), ezin izango da hura material sukoiez inguratuta egon. Debekatuta dago kandela, petrolio edo/eta gas bi-dezko argiztapen sistema oro. Sistemak behar bezala erabiltzeko moduan egon behar dute desfilea hasi baino lehen; horrela izan ezean, karroza erretiratu egingo da.

Karroza erregeiz hornitzeko unean (betiere ibilgailua geldirik dagoela bete beharko da erregei-depositua) zorroztu egin beharko dira segurtasun neurriak. Depositu lagungarriak homologatuak izan beharko dira, eta bero-iturrietatik ondo berezita egin beharko dute.

Desfilean ezingo da gurpilak eta soinu amplifikatua duen bestelako elementurik eraman. Aniztasun funtzionala duten pertsonak mugitzeko erabiltzen diren gurpildun ibilgailuak joan ahalko dira desfilean, soinurik gabe. Konpartsaren amaieran desfilatu beharko dute istripuak saihesteko, eta indarrean dagoen araudiari dagokionez, Udaltzaingoaren oniritzia jaso beharko dute, bide publikoan zirkulatu ahal izateko.

Horretarako ibilgailuaren ezaugarriak jakinarazi beharko diote udaltzaingoari, honen oniritzia izateko behar besteko denborarekin.

Karroza gainean bi adindun pertsona joan ahalko dira gehienez. Arau hau ez betetzeak zigorra ekarriko du.

2. Ibilgailuak.

Desfilean parte hartuko duten ibilgailu motordunek zirkulazio baimena, Ikuskaritza Teknikoaren txartela eta dagozkien aseguru-polizak izan beharko dituzte. Gidariei gidabaimena izan beharko dute, daramaten ibilgailu motari dagokiona.

Ibilgailuen gidariei trafiko alorreko legedia aplikatuko zaie. Alkohol-kontsumoari dagokionez, Udaltzaingoak kontrolak egin ahalko ditu desfileak hasi aurretik eta iraun bitartean.

Udaltzaingoak ibilgailuen eta gidarien dokumentazioa eskatu ahal izango du, dagozkion ondorioetarako.

3. Desfileak.

Desfileetan 300 kidek desfilatu ahalko dute gehienez konpartsa bakoitzeko. Parte hartzaileak desberdinak izan daitezke larunbatean eta igandean. Horretarako, zerrenda desberdinak bidali behar dira larunbaterako eta iganderako.

Guztiak hartzen dira parte hartzailetzat, adina gora behera.

Desfile egunetan, karrozen gidariak pabilioian izan beharko dira konpartsa guztien artean adostutako orduan, hartara modu egokian eta bakoitzari egokitu zaion hurrenkeran ateratzen; adostutako orduan egon ezean, karrozak desfilean zegoen lekua galduko du, eta azken lekuan aterako da. Ezingo da karrozen irteera oztopatuko duen ibilgailurik edo elementurik utzi.

Karroza bakoitzaren alboetan antolatzaileek identifikatu eta egiaztatutako laguntzaileak joan beharko dira, gutxienez pertsona bat 6 metro bakoitzeko, antolatzaileek behar bezala identifikatuta eta akreditatuta.

Ez da onartuko karrozen eta beste parte-hartzaile batzuen artean 10 metro baino tarte handiagorik; modu lerrokatu eta uniformean joan beharko da.

Parte-hartzaileen arteko distantziak, eta parte-hartzaileen eta ikusleen artekoak, desfileen unean indarrean dauden jarraibideen arabera arautuko dira, dagokion araudiaren arabera.

Ibilgailuak matxurarik edo bestelako akatsik badu, desfiletik aparte geratu beharko da, eta berehala antolatzaileei jakinarazi.

Ezin izango da karrozatik gozokirik bota.

Debekatuta dago gargailuak eta material piroteknikoa erabiltzea.

Konpartsa bakoitzean oinarrizko prebentzioari eta su-itxalgailuen erabilerari buruzko prestakuntza jaso duten pertsonak izan beharko dira.

Segurtasun arrazoiak direla eta, espaloietan jendetza pilatzen denez gero, desfileetan ezin izango da animaliarik eduki, ezta erabili ere.

Soinua erreproduzitzeko tresnak ezingo dira aktibatuta desfilea hasi baino ordubete lehenagora arte; desfilea amaitzean isildu egin beharko da karrozako musika. Soinu-aparatuen bolumena alor horretan indarrean dauden arauetara egokitu beharko da.

Gasteizko Udalak inauterietako egitarauko ekintza publikoetan hartutako argazkiak erabili ahalko ditu Udalaren web-orrian ipintzeko.

12 Uko egitea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, entitate onuradunak hari uko egitea eska dezake herritarrei laguntzeko bulegoetan, eskabide normalizatuaren bitartez.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehenago aurkeztu beharko da uko-agiria, eta ondorioa izango du Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak onartu ondoren; kasua hala balitz, itzuli egin beharko lirateke jasotako diru kopuruak.

13 Dirulaguntza ordaintzea

13.1 Dirulaguntza zatika ordainduko da: dirulaguntza osoaren ehuneko 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da, eta gainerako ehuneko 20 jarduera amaitzen denean eta jarduera osoa gauzatu dela justifikatu ondoren.

13.2 Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

13.3 Kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun denean ere.

14 Dirulaguntzak justifikatzea

14.1 Justifikatzeko epea.

Hiru hilabetekoa izango da dirulaguntzak justifikatzeko epea, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik.

14.2 Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein gasturen kostua egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

1-J eranskina: Proiektu edo jarduera hainbat entitate publiko edo pribatuk finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da eranskin hori.

14.3 Justifikatzeko sistema.

Dirulaguntzaren onuradun diren pertsonak edo entitateek justifikazioko kontua aurkeztu beharko dute jasotako dirulaguntza justifikatzeko, ondoren adierazitakoari jarraituz.

Dokumentazioa aurkezterakoan oinarri hauetan agiriak normalizatzeko emandako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

a) Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balioespena barne.

Antolatutako ekimenetan parte hartu izanaren azalpen laburra aurkeztu beharko da.

b) Jardueren kostua justifikatzeko txosten ekonomikoa. Xehetasun hauek jaso beharko ditu:

• 2-J eranskina: Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda. Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira, bertan adierazten den moduan: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Jatorrizko fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio.

• Eskudirutan ordaintzekotan, legez ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da —web-gune honetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es—.

• Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jasozanaren agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

• Jasotze-agiriak datu hauek jaso behar ditu:

• Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.

• Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.

• PFEZaren atxikipena —dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da—.

• Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

• 3-J eranskina: Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

• 4-J eranskina: Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

• Dirulaguntza jaso duen proiektuko langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori, eta entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) atxiki.

• 5-J eranskina: Erantzukizunpeko adierazpena Entitate onuradunak eranskin hori bete beharko du, eta adierazpen hauek jaso bertan:

Erantzukizunpeko adierazpena, faktura eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea burutzetik sortuak direla eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla.

Erantzukizunpeko adierazpena, proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela.

Zeharkako kostuen erantzukizunpeko adierazpena ez da bete behar, deialdi honetan ez delako zeharkako kosturik onartzen.

Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, halakorik badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

• Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arrear dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 39.999 eurotik gorakoa bada obra-kontratuetan (BEZik gabe), eta 14.999 eurotik gorakoa (BEZik gabe) hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egina badago.

14.4 Emandako dirulaguntza ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

15 Entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela azaldu beharko dute, argi eta garbi, publizitaterako baliatzen dituzten bitarteko guztietan.

Era berean, udal-finantzaketaren berri eman beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten material inprimatuetan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektronikoko eta ikus-entzunezkoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsi beharko du testu honekin: "Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra." Udal sailek helaraziko diete Udalaren logotipoa pertsona eta erakunde onuradunei.

Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

16 Azpikontratatzea

Pertsona eta entitate onuradunek jarduerak azpikontratatu ahal izango dituzte, dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 16. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.2 artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

17 Programa bertan buhera Uztea eta aldatzea

Gasteizko udalak desfileak bertan behera utzi behar baditu osasun egoera dela kausa, bertan behera geratu dela jakinarazi arteko gastuak ordainduko zaizkie laguntza jaso duten konpartsei.

Konpartsek diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko diote Gasteizko Udalari, alde zuzenetik. Berariaz baimenduta baino ezin izango da gauzatu aldaketa. Oro har, aldatzeko eskabideari erantzuten ez bazaio, ezetsi egin dela ulertu beharko da.

18 Beste laguntzekiko bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin.

Dena den, dirulaguntzen eta bestelakoren bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino handiagoa izan.

19. Dirulaguntzak itzultzea

Jasotako dirulaguntza itzularazi ahalko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan:

- Eskabidean emandako datuak edo aurkeztutako agiriak faltsutu egin badira.
- Dirulaguntza zertarako eskatu zen, hartarako erabili ez bada.
- 11. oinarrian –eta, oro har, oinarri hauetan– ezarritako betekizunak urratu badira.
- Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 20. artikuluan adierazten diren kasuetan.

Era berean, onuradunek diruz lagundutako gastuen kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko dute.

20. Arau-hausteak eta zigorrak

Gasteizko udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

21. Interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrak ebaztzeko ditu.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuko da, baita dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Udalaren web orrian (www.vitoria-gasteiz.org) kontsultatu ahalko dira oinarri hauetan aipatutako udal ordenantza eta araudiak zein udal planak:

Webgunean —www.vitoria-gasteiz.org webgunearen mapa argitaratuko ditu Udalak emandako dirulaguntza eta laguntza publikoak, zenbatekoa, xede edo helburua eta onuradunak zehaztuta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen II. kapituluko 8. c) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen II. kapituluko 55. i) artikuluan xedatu bezala, eta Datu pertsonalak babes-teari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeko irizpideak aintzat harturik.



Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa	
Tratamenduaren arduraduna	Vitoria-Gasteizko Udala (IFK- P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak	Pintor Teodoro Dublang Kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	2022ko Inauterietan parte hartuko duten konpartsei zuzendutako diru-laguntzen kudeaketa.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, arxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko zeskatu.



II. eranskina

Karrozak prestatzeko pabilioiaren erabilera arauak

2022ko inauteriak

***** Oinarri hauetan eta beren eranskinetan xedatutako edozein betebeharrak ez betetzea, udal ordenantzaren urraketa bezala dago tipifikatuta, eta aurreikusitako zehapen eta zigorrak ezartzea ekar lezake.**

1. Pabilioiko plazak zenbatu egingo dira, eta desfilean konpartsa bakoitzari egokitu zaion hurrenkeraren arabera beteko dira.
2. Ezin da giltzaren kopiarik egin. Konpartsa bera eta haren izenean giltza jasotzen duen ordezkaria dira giltzaren erantzule bakarrak. Inauteriak bukatu ondoren, derrigorrezkoa da giltzak bueltatzea.
3. Pabilioiko lau ateak larrialdietarako ateak dira. Hori dela eta, jendea barruan dagoen bitartean, ezin izango dira giltzarekin itxita egon. Korrontea ekiditzeko, itxitak egon beharko dira baina giltzarik gabe.
4. Karrozak egiteko lanetan ez dihardutenek debekatuta dute pabilioian sartzea. Horrez gain, ezin izango da ondoko pabilioietara sartu.
5. Karrozak egiten lanean arituko diren konpartsakideek jarduera horrek eskatzen dituen segurtasun eta babes neurri guztiak hartuko dituzte.
6. Pabilioian sartzea erabat debekatuta dago 14 urtetik beherakoentzat. Pabilioian sartzen den pertsona guztiak ezagutu beharko dute arau hau.
7. Animaliak ezin dira sartu pabilioian.
8. Egunero, pabilioia utzi baino lehen, azkenengo konpartsakideak itzali beharko du koadroaren argia.
9. Debekatuta dago pabilioi barruan ibilgailuak aparkatzea, ez bada zamalanetarako. Behin zamalanak amaituta, ibilgailua atera egin beharko da pabilioitik.
10. Jagole batek zainketa lanak beteko ditu zehaztuko diren egun jakin batzuetan. Zerrendetan agertzen diren pertsonak sartu ahalko dira pabilioira egun horietan. Jagoleak ez du beste inor sartzen utziko, eta horretarako sartu nahi duenari agiriaren bat eska diezaioke nor den jakin ahal izateko.
11. Erabat debekatuta dago sua piztea eta janaria prestatzea. Janaria mikrouhinen edota plaka elektrikoaren bidez soilik berotu ahal izango da. Orokorrean, ezin izango da egin arrisku handia duen edozein gauza.
12. Erabiliko diren argailu eta aparatu guztiak indarrean dagoen BEHE TENTSIORAKO ARAUDI ELEKTROTEKNIKOKO horietako bakoitzarentzat zehaztuta dagoen isolamendu-maila eta hortik gorakoa izan beharko dute. Gainera, elementu horiek pintzean aipatutako araudian horietako bakoitzarentzat ezarrita dauden exijentziak bete beharko dira, eta arreta berezia eman beharko zaie babesei, kableei eta lurrei (ITC-BT-09, ITC-BT-10, ITC-BT-17, ITC-BT-34, ITC-BT-43, ITC-BT-44 eta IV. Kapituluak).



13. Pabilioitik alde egitean, bertara sartzean aurkitu zuten egoera berean uzteko konpromisoa hartzen dute konpartsek. Hain zuzen, karrozak egiteko erabili dituzten material guztiak kendu eta aterako dituzte.

14. Erremolkeak eta materialak kendu eta pabilioitik alde egiteko epea martxoaren 7an (astelehena) bukatuko da, 22:00etan. Giltzak martxoaren 9an (asteazkena) 14:00ak baino lehen itzuli beharko dira Kultura Zerbitzuan. Ezinbestekoa izango da giltzak bueltatzea dirulaguntzaren osotasuna jaso ahal izateko.

15. Arau hauek ezin dira aldatu Kultura Zerbitzuaren baimenik gabe. Halaber, arazorik gertatzen bada, hari jakinarazi beharko diote erabiltzaileek.

16. Pabilioia erabiltzeko arauak ez betetzearen ondorioz kalteak sortuko balira, erabiltzaileak izango lirake erantzule bakarrak, eta ez Udala.

17. Beheko sinatzaileek, haien konpartsen izenean, arautegi hau onartzen dute eta betetzeko konpromisoa adierazten dute.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko aren (e)an.

Sinatua
Konpartsaren ordezkaria



III. eranskina

2022ko Inauterietan konpartsek parte hartzeko adierazpena

Konpartsaren izena

*** Adierazi nahi duzun aukera:

<input type="checkbox"/>	Konpartsak 2022ko Inauterietan parte hartzea erabaki du
<input type="checkbox"/>	Konpartsak 2022ko Inauterietan parte ez hartzea erabaki du, baina urteko mantentze-gastuak ordaintzeko eskatu du
*** Aukera hau aukeratuz gero, ez da beharrezkoa izango gainerako eranskinak eta parte-hartzaileen zerrenda betetzea.	
<input type="checkbox"/>	Konpartsak 2022ko Inauterietan parte hartzeko proposamen alternatibo bat aurkeztea erabaki du. Proposamen hori jarraian azalduko da, batzorde teknikoak baloratu dezan:

Vitoria-Gasteizen, 2021eko aren (e)an.

Izenpea eta elkartearen zigilua